

# MCI WorldComek Sprint erosi du 129.000 milioi dolarretan

Orain arte egindako enpresa erosketarik garestiena da

Agentziak / New York

EEBBetako telekomunikazio alorreko bi konpainiak inoiz egindako enpresa erosketarik garestiena gauzatzeko akordioa lortu dute: MCI WorldCom-ek Sprint erosi-

ko du 129.000 milioi dolarretan, hau da, 20,12 bilioi pezeta edo 805.000 milioi liberatan. Bategitea ez da gauzatzeko datorren urte erdia arte, monopoliorik izan ez dadin Europako eta EEBBetako agintarien oniritzia behar baitu.



Bernard J. Ebbers MCI WorldComeko presidentea hizketan eta William T. Esrey Sprinteko entzuten, atzo bategitea aurkezteko ekitaldian.

BEBETO MATTHEWS / AP

MCI WORLDCOM EEBBeta-ko telekomunikazio alorreko bigarren konpainia nagusia da, eta Sprint hirugarrena. Enpresa erosleak atzo jakinarazi zuenez, Sprinten akzio bakoitzeko 76 dolar ordainduko ditu. Horrez gain, Sprintek telefonia mugikorretarako duen enpresa filiala ere bereganatuko du MCIk, baita haren zorra ere. Guztira aipatutako 129.000 milioi dolarretara helduko da salerosketaren balioa.

Erosketaren ondorioz sortuko den konpainiaren izena

WordCom izango da. Haren Administrazio Kontseiluko presidentea William Esrey izango da, orain arte Sprinteko presidentea izandakoa. Kontseilari-ordezkarri eta exekutibo nagusia, berriz, MCI WorldComeko presidentea Bernard Ebbers izango da.

WordCom lehia bizian ariko da AT&Tekin, berau EEBBetako telekomunikazio alorreko enpresa nagusia baita. Bat egindako bi enpresen artean telefonia merkatuaren %30 inguru bereganatuko dute.

Nolanahi ere, bategitea ez da 2000. urteko bigarren hiruhilekoa arte gauzatzeko, EEBBeta eta Europako agintaritzen oniritzia jaso behar dutelako, sor litezkeen monopolioak eragozteko.

Sprintek beste erosketak eskaintza bat jaso zuen igandean bertan, BellSouthek egindakoa. Eskaintza hori dirutan MCIrena baino hobea bazen ere, Sprinteko zuzendariak azken hori hobetsi dute, bi enpresa hauen negoziak bateragarriagoak direlako.

## laburrean

### ■ CCOOK aurten 7.000 langaberi lagunduko die enplegatzen Forem zerbitzuaren bidez

CCOO sindikatuak kudeatzen duen enplegu zerbitzuak, Forem izenekoak, 6.000 langaberi lagundu zien enplegua aurkitzen 1998. urtean, eta aurten kopuru hori 6.996ra iristea aurreikusi du Jose Luis Ruiz CCOOko prestakuntza arduradunak. Foremek INEM erakundearekin hitzarmena dauka enplegu politika aktiboak eskaintzeko, hau da, langabeei argibide, prestakuntza eta laguntza emateko. INEMek langabeen %20 Foremera bidaltzen ditu zerbitzu horiek jaso ditzaten.

### ■ Pasaiaiko portuak 3,5 milioi tona merkantzia garraiatu ditu aurten iraila arte

PASAIKO portuak 3,5 milioi tona merkantzia garraiatu ditu aurtengo lehenengo bederatzi hilabeteetan, iazko epealdi berean baino %21 gehiago. Garraio horren %80 porturatutako merkantziak izan dira, eta %20 ontziraturakoa. Horrek adierazten du Pasaiaiko portuaren jardueraren nagusia inportazioa dela. Gehien garraiatutako merkantziak txatarra eta altzairugintzako produktuak dira, 991.000 tona eta 735.000 tona hurrenez hurren.

### ■ EAeko abeltzainek ez dute isunik ordaindu behar izango kuota gaintzeagatik

BEHI esnea ekoizten duten EAeko abeltzainek ez dute isunik ordaindu behar izango ekoizpen kuotak gaintzeagatik. Gasteizko Nekazaritza Sailak adierazi duenez, Madrilgo Gobernuak onartu egin du EAek bertako abeltzainen artean esne kuotak banatzeko eskumen osoa duela, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hala erabaki duelako.



MIREN SAEZ

### ■ KEseko kideak EAeko lehendakariarekin

Javier Mongelos Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko presidentea eta Javier Hernandez idazkari nagusia Lehendakari izan ziren atzo arratsaldean. Bileraren helburua Juan Jose Ibarretxe lehendakariari 1998an kontseiluak eginiko lanaren txostena azaldu eta eskura ematea izan zen.

## Burtsa


• J.B. ANDUEZA •

### Hitz-aspertuan

Hitz-aspertuan, zurrumuruak komentatzen pasatzeko egun aproposa izan zen atzokoa. Zergatia? Arratsaldeko 20:00etan jakitekoa zela Estatu Batuetako Erreserba Federalak dolarraren interes tasak igotzeari buruz zer erabakitzen zuen, eta noski horrelako kasuetan, Greenspanek zer esan zain, ez

da komeni arrisku handirik hartzea. Irabaziak izan ziren, hala ere, besteak beste, ohiko ditugun zurrumurruren inguruan. Batetik banka sektorean (ikus eskuinaldean), eta bestetik loditu eta argaltzen maisu den txerriaren eskutik, Telepizzaren eskutik, alegia (+%4tik gora irabazi zuen atzo).

### Bilboko indizea



### Dibisen merkatua

	1 Euro
Pezeta	163,386
Libera	6,55
Dolarra (KMU)	1,0686
Libra Esterlina	0,6456
100 Yen japoniar	1,1398

### Beste indizeak

Indizea	Indizea	%
New York (Dow Jones)*	10.455,37	(+%0,52)
Tokio (Nikkei)	17.784,15	(+%0,12)
Madrid (IBEX-35)	9656,20	(+%0,58)
Paris (CAC-40)	4.661,13	(+%1,26)
Londres (FTSE 100)	6.084,50	(+%0,52)
Frankfurt (DAX-XETRA)	5.301,85	(+%1,50)
Milan (Milan)	23.005	(+%0,29)

■ NH hotel enpresak EEP bat (Erosteko Eskaintza Publikoa) aurkeztu du Sotogrande enpresaren akzioen gainean. Akzioen %100 eskuratzeko asmoa du.

■ Prentsa arrosaren itxura hartzen ari dira azken egunotan burtsako kronikak. Ezkontza eta banatze zurrumurruren Guinness errekorra izango dute ziur aski BBVk (+%1,93) eta Argentariak (+%3,53).